


TOKIKOM

Pil-pilean

Soraluzeko hilabetekaria • 2014ko otsaila • 288. alea



DAVID LINDENMANN
Alemaniar jatorriko euskalduna

Zure umoria eta bizipoza gurekin geratu dira
Eskerrik asko Jokin!



Soraluzeko
Txuri Urdinak

Euskalzaleok sagardotegira
Urdaira sagardotegia

Martxoaren 15a, zapatua
(bazkarixa)

Izena emateko epia: Martxoaren 9a

Lekua: Arrano, Gaztetxe edo Pil Pileanen

943 75 13 04 edo euskara@pilpilean.com

Antolatzaileak:

Zoragarri pasatuko dogu!



Argazki albuma (sare sozialetako) plaza erdian uzten al duzu?



Aitor Madrid *Markel Arizaga*

Kaixo Markel aspaldiko!

Guk biok asko ibiltzen gara sarean. Eguneko ordu asko pasatzen ditugu bertan lanean. Eta ez zaizkigu bat ere arrotzak hor erabiltzen diren tresnak. Maiz erabiltzen ditugulako. Sarri, gure nortasuna erabilita gestioak egiten ditugu. Harreman berriak egin, informazioa partekatu eta iritzia ematen dugu besteak beste. Onerako edo txarrerako gure arrastoa uzten ari gara amaraun erraldioan.

Gustatuko litzaidake idatzi hau irakurtzen ari direnak jabetzea interneteko sare sozialetan ibiltzeak daukan garrantziaz. Egoki erabilita onura handiak lor ditzakegu, oker erabilita, berriz, hanka sartze itzelak egin daitezke. Lehenengo eta behin saretik at bezala interneten ere nortasun bat daukagula argi izan behar dugu. Bizitza normalean gauzak helburu bat lortzeko egiten ditugun moduan interneten ere beste horrenbeste egin beharko genuke. Garbi izan interneten jartzen dugun informazioa pertsonala edo profesionala izan, azkenean hor sarean edozeinen esku geratuko dela.

“Zentzudun jokatuta etekin polita aterako diogu sare sozialetan ibiltzeari”

Esan bezala, argi ibilita eta zentzudun jokatuta etekin polita aterako diogu, oro har, sare sozialetan eta interneten ibiltzeari: harreman berriak egin, informazio baliotsua eskuratu eta partekatu, eta garrantzikoena guk nahi dugun nortasuna erakutsi. Al! eta ez ahaztu mezuak bidaltzean CIA, FBI, edota Mosatekoak agurtzeaz, besteak beste. :-)

Iepa Aitor (eta entzuten egon daitekeen munduko edozein espioitza agentzia), arrazoa daukazu, gaur egun bi mundu paralelotan biziko bagina bezala da.

Alde batetik jaio ginenetik ezagutzen dugun mundua, batzuk “mundu erreala” izendatzen dutena, eta, bestetik, erlatiboki berria den bizitza digitala. Bigarren kasu honetan monitore baten atzean egoteak ematen duen anonimotasun eta efimerotasun sentrazioak oso normalak izaten dira. Hala eta guztiz, bi hauek sentrazio hutsak izatetik urrinago ez dira joaten.

“Seguruenik gustatuko litzaigukeena baino gehiago kontatu dugu hor zehar”

Zuk esan duzun bezala mundu digitalean esan eta egindako guztia hor nonbait geratzen da, momenturen batean norbaitentzat erabilgarria izango den esperantzarekin. Seguruenik gustatuko litzaigukeena baino gehiago kontatu dugu hor zehar, gu biok barne, eta kasu gehienetan beste aldean entzule ikusezin bat daukagula jakin barik.

Bai, erosotasun handia lortu dugu teknologian aurrerapenarekin, baina kontutan hartu beharko genuke normalean erosotasuna pribatutasunarekiko eta segurtasunarekiko proportzionala dela. Beti esaten dudan moduan, sarean erabiltzen dugun edozein zerbitzuek dituen inplikazioak ulertzeko denbora hartu beharko genuke, hortik aurrera zerbitzu horiek jakinaren gainean erabili ahal izateko. Guri buruzko informazioa gure kontrolpetik at geratzen den momentuan, beste aldean egongo den horrengan konfiantza izatea besterik ez zaigu gelditzen. Mundu errealean edozeini erakusten dizkiozu zure argazkiak?

Gutunak

Erisentxokoilunetik

mundua krimenaren agertoki bilakatuta
etsaiak babesten gaituela sinestarazi nahi digute
ez dugu gehiago irentsiko
ez dugu horretarako goserik
gure gosea eta egarria bestelakoa da
eta ez gara berehalakoa aseko

sufrajistetatik transfeminismora
paleolitikoko ama-gizartea ahaztu gabe
gure buruak armatuz goaz
testosteronak bultzatutako gerrak ahaztuta
gure armak bestelakoak dira
Pankhurst, Storni, Buttler, Rodrigañez
eta beste hainbat itzalpetik
haiekin armak hartu ditugu

badatozenak besoak eta hankak zabalik jasoko ditugu
gure barnean sakon sartzeko
larrua jo beharrean laztanduz
pultsioak sentituz
barnean ditugu
animali garela gogoratu

beste mundu hobeago bat posible da
eta mundu honen sabelean sortzen ari da
taupadak entzun ditzakezu
adi egon ezker
benetako iraultza bakar
more koloreko iraultza



Erisentxokoilunetik blogaren egileek martxoaren 8a dela eta, bidali diguten olerki formako kolaborazioa da.

Bittartetik




Arrote Gisasola Ixeta

Sarea botatzen

Pil-pilean Euskara Elkartearen gaineko lerroak idaztea suertatu zait zuzendaritza berria martxan hasi den honetan. Koordinatzailearen paper tipikoa hartu eta gordin gordin idatz nezake, 18 urtetan egin duguna eta hurrengo 4 edo 6 urtetan egingo dugunaz. Idatz nezake zer, noiz, non, zenbat... Baina aldizkari honek memoria astun edo egitasmo zurrun bat baino gehiago merezi du.

Elkarteko langile/lankide diren lagunak ditut bidelagun egunero egunero, eskuz esku euskaraz, euskaratik eta euskara amesten. Eta gaurkoan, ekipo berri ofiziala gehitu zaigu jardunera, antzinako kideak eta kide berriagoak. Lehenago Soraluzeko bolondres askokin gertatu zaigun bezala gertatu zaigu zuzendaritzako lagun bakoitzarekin. Banan-banan hurbildu, babesa eta euren denbora euskararen mundutxo honi eskaintzeko eskatu eta baietz, baietz eta baietz, prest daudela. Edarra!!

Horrela bizi dugu oraina elkartea: prestutasunez eta ilusioz. Eta oraina horrela marrazten badugu, pista asko argitzen zaizkigu etorkizunerako. Sinestetik eta ilusiotik sortutakoek aukerak besterik eskaintzen ez dituztelako. Baina ez gara Euskaltzaleen Topagune izango ekipo ofizialeatik irten eta plazan euskaltzaleekin batera jarduten ez badugu, hori da gure erronka nagusia, euskaltzaleen sarea sendotu eta plazan aritzea. Zuzenean, euskaltzale, harrapatuko zaitugu sarean!



JOAKIN ZABALA MORILLO
2014KO OTSAILAREN 10EAN HIL ZEN,
67 URTE ZITUELA

*"Bertso hau eskaini nahi dizugu,
gure borondate onakin
asko erakutsi baituguzu,
eduki duzun kastarekin;
ezin izango zaitugu ahaztu
anai, tio ta lagun Jokin,
nahiz eta urrutira joan zaren
beti egongo zara gurekin"*

Etxekoak

artisa u
mermelada
organikoak

*Formakulturaren inspirazioa, naturaren ar-eginez, larra
eta pertsonalaren zaintza dibun bihurtzeko sortzen*

info@itxoste@gmail.com
637 26 21 60 / 665 23 96 65
Zeletan baserria, Sorakuzen

Saviera
laranjak

...zuhaitzetik zure mahaira

www.saranjatsaviera.es
info@saranjatsaviera.es
mobila 666 806 358

“Euskaldun moduan gure etorkizuna erabakitzeko aukera errespetatzea nahi dugu”

Maite Lete

Soraluzeko Gure esku dago mugimenduko kidea



Maite Lete, Soraluzeko Gure esku dago taldeko kidea.

Joan den zapatuan aurkeztu zuten Soraluzeko Gure esku dago taldea, euskal nazioak bere etorkizuna erabakitzeko eskubidea duela aldarrikatzeko sortu den herri mugimendua. Hiru ideia nagusi ditu oinarrian: nazioa gara, erabakitzeko eskubidea dugu eta etorkizuna herritarren esku dago.

Maite Letek (Soraluze, 1969) urtarrean ekin zion Gure esku dago mugimenduko lan taldean parte hartzeari, askotariko sentsibilitateen elkargune bihurtzeko bokatua duen herritar mugimendua.

“Askotariko sentsibilitateen elkargune bihurtu nahi dugu”

Zela deskribatuko zenuke GED mugimendua?

Herriri zer izan nahi duen galdetu eta euskaldun moduan gure etorkizuna erabakitzeko aukera errespetatu dadila nahi dugu. Beldur eta konplexurik barik, herritarren presioaren bitartez erabakitzeko eskubidea praktikara eramatea lortzea da gure helburua. Mugimendua bera askotariko sentsibilitateen elkargune bihurtu nahi dugu, sektore, ideologia eta adin ezberdinetako herritarrez osatua, anitza, zabala eta apartidista.

Zela joan zen zapatuko aurkezpena?

Oso ondo. 100 herritar inguru batu ginen antzokian. Ekainaren 8an Durango- Iruñea lotuko dituen giza katea aurkeztearekin

batara, Gure esku dago mugimenduan parte hartzeko ateak zabaldu ditugu. Gustatuko litzaiguke hemendik aurrera soraluzetarrek bat eginda erabakitzeko eskubidearen aldeko errebindikazioetan parte hartzea. Momentuz 68 lagunek hartu dugu konpromisoa.

Zer lortu nahi da Ekainaren 8ko herritar-katearekin?

Bat eginda bakarrik lortuko dugu nazio moduan azaldu eta erabakitzeko eskubidea praktikan jartzea. Lehenengo pausoa mugimendua herriz-herriz antolatzea izan da. Herritarrok sinetsi behar dugu indar handia dugula batzen bagara. Ekainaren 8an, Durangotik-Iruñea lotuko dituen herritar-katearen bitartez, euskal nazioak bere etorkizuna erabakitzeko duen asmoa agertuko diegu gure agintariei, Espainiari eta mundu osoari.

“Autobusa antolatuko dugu 29an Bilboko La Casillara joateko”

Zenbat herritar beharko dira?

Guztira 125 kilometroko katea osatu beharko dugu herritarren artean, eta horretarako 50.000 herritar batu beharko ditugu. Soraluzetarroi Bergara inguruko kilometro zati bat betetzea dagokigu, eta guztira 400 soraluzetar inguru beharko dira.

Antolatuko duzue herrian parte hartzea sustatzeko ekimenik?

Bai. Martxoan Gazta zati bat dokumentala ikusteko aukera eskainiko dugu eta 29an Bilboko La Casillan egingo den ekitaldirako autobusa antolatuko dugu. Aurrerago, maiatzaren amaiera aldera 24 orduko ekitaldia antolatzeko asmoa dugu, herriko musikari, artista, kirolari eta askotariko herritarren parte hartzearekin.

“400 soraluzetar inguru beharko dira herritarren-katean”

Taldera batu edo metroa erosi nahi duenak zer egin behar du?

Bolian, Batzokian, Arranoan, Iratxon, Bolintxon, Mendizabalen eta Txurixun jarri dugu izena eman eta herritarren kateko metroak erosteko aukera (5 euroan). Atxikimenduak batzeko kalean mahaia jarriko dugu eta bertan argitu ahalko da edozein zalantza.

Azken mezuren bat?

Behin entzun nuen erabakitzeko eskubidea gauza inportantea dela politikarien esku bakarrik lagatzeko, eta halaxe uste dut nik ere. Herritarren parte hartze aktiboarekin bakarrik lortuko dugu elkar ulertu eta elkarrekin herria eraikitzea, eztabaidatuz, entzunez, ikasiz...



Batukada, karaokea eta bertso-afaria nobedade aratusteetako egitarauan

Mielotxinekin batera aterako dira gaur Lehen Hezkuntzako eta DBHko ikasleak kalera, euskal aratosteak ospatzera. Ateri badago kalejira koloretsua egingo dute, eta ondoren, antzerki, bertso eta dantzez osatutako ekital-

dia aurkeztuko dute kiroldegian. Bihar 12:00etan ekingo dio Akelarre txarangak kaleak girotzeari eta arratsaldean ohiko jolas eta dantzen ostean, gaztetxeak eta Galtzagorriek elkarlanean antolatutako batukada kalejira hasiko da gaztetxetik. Afalordurako LIBRE bertso-afaria antolatu dute Arrano Elkartean, Amaia Agirre eta Erika Lagoma bertsolariekin. Gauean, Gaubela taldeak joko du Plaza Zaharrean.

Mozorro onenari saria

Umeentzako play-back lehiaketa 18:00etan hasiko da, eta ostean, buruhandiak aterako dira kalera, herriko dultzaineroek lagunduta. Iluntzean taldekako eta bakarkako mozorrorik onenak sarituko ditu udalak 50 eta 100 euroekin eta festari Trakets taldeak emango dio amaiera.



Euskal aratosteetako kalejira, iaz.

FotoNotizia



Soraluze irrizalea aurkeztu dute

Otsailaren 11n Irrien Lagunak Klubeko Largabistak eta Martinbertsok "Herri irrizalea" proiektua aurkeztu zuten. Aurtengo ikasturtean zehar herrian antolatuko diren ekintzetan Irrien Lagunen Klubeko kideek hainbat ikuskizun eskainiko dituzte, betiere euskaratik eta euskaraz; partehartzea, aniztasuna eta elkartasuna moduko baloreak transmititu asmoz.



**DIN arauak jarraituz
eta zehaztasun handiz egindako torniluak**

T. 943 75 17 36 / 1803 Industrialdea 20 - 21
F. 943 75 22 95 50 Posta Kutxatila
20590 Soraluze

Javier Alberdi



EUSKO LABEL

Baimendutako
harategia
Euskal Okela
Carnicería
autorizada

Errebal kalea, 24 • Tel. 943 75 19 32 • Soraluze

Motzean

Alkarrekinen ondorioen aurkezpena martxoan

Herritarrek eta Udalak Alkarrekin prozesuan zehar adostutako lan-ildo eta ekintzak aurkeztuko dituzte martxoaren 8an. Ekitaldia goizeko 10:00etan hasiko da antzokian. Gero, pilotalekuan, ondorioak aurkeztu eta talde-dinamikarekin jarraituko dute. Amaitzeko, argazki atera eta luntxa egingo dute. Ekitaldi horrekin iaz hasitako parte hartze prozesuaren hausnarketa eta diseinu fasea itxiko da, eta aurrerantzean inplementazio-faseari ekingo zaio. Udalak 40.000 euroko diru-partida gorde du aurrekontuetatik horretara bideratzeko.



Kuadrilak presoen eskubideen alde

Presoen eskubideen alde diharduen herritar mugimenduak iazko urtean zehar arloz arlo gizarte eragileetan diharduten pertsonen atxikimendu dinamika gaituztat eman ondoren, hemendik aurrera kuadrilak gonbidatuko ditu Azken Barixakuetako deialdiak egitera. Otsailekoa izango da kuadrila batek deituko duen lehen elkarretaratzea.



Igor Gomezek kudeatuko du jubilatuetako taberna

Itxaropena Jubilatuen Etxeko taberna kudeatzeko bi eskaintza jaso ditu Udalak eta Igor Gomezek lortu du puntu gehien. Bera arduratuko da datozen lau urteetan jubilatuetako taberna kudeatzea. Martitzenean, bestetik, juntako kide berriak hautatzeko urteko batzar nagusia egingo dute. 16:30erako zehaztu dute lehen deialdia, 17:00etarako bigarrena.



Garbigune berria zabaldu dute Eibarren

Debabarrenako Mankomunitateak gaikako bilketarako instalazio berria zabaldu du Eibarren, Azitain industrialdean. Bertara etxean egindako obra txikietako hondakinak, plastiko birziklagarriak, beira, kartoizko bilgarriak, tamaina handiko gauzak, lorezaintzako hondarrak, pneumatikoak, aparatu elektriko eta elektronikoak, tintak, tonerrak, pilak eta pintura poteak eraman ahal izango dira, astegunetan 9:00etatik 13:00ra eta 16:00etatik 18:00ra eta zapatuetan 9:00etatik 13:00ra. Zerbitzua doanekoa da.



Odol-emate saioa martxoaren 21ean

Gipuzkoako odol-emateen elkarteak deituta, odol-emate saioa egingo da martxoaren 21ean arratsaldeko 18:30etik 20:30era Itxaropenan.

Zuzendaritzakide berriak ibilbide berrirako

A benduko batzarrean aukeratu zituen Pil-pileanek elkartearen ibilbide berria gidatuko duten zortzi pertsonak. Batzuk, lehenago elkartearen bueltan ziharduten euskalzaleak dira: Arianne Unamuno (lehendakaria), Arrate Gisasola (koordinatzailea) eta Maite Etxeberria (euskalgintza) esaterako. Gainerakoak, aurpegi berriak; Nagore Hermosa eta Asun Gandiaga (haur eta gazteak), Gotzon Elizburu (komunikabideak), Domentx Uzin (kultura) eta Oihana Mendizabal (administrazioa).

Elkartea herriko euskalzaileen topagune

Elkartearen izenean egin beharreko ordezkaritza lanez gain, martxan dauden egitasmoen eta abiatuko direnen inguruko aholkularitza ematea izango dira bete beharreko funtzio nagusiak. Hori dela eta, elkarteak jorratzen dituen



Zuzendaritzakide berriak.

arloetan esperientzia izatea da zuzendaritzakideen ezaugarrietako bat, ageriko euskalzaletasunarekin batera. Etorkizunean, langile, bolondres eta 330 bazkideekin batera, elkarte herriko euskalzaileen topagune ireki eta sendo bihurtzea izango dute helburu.

“81 amama” eta “Alardearen seme-alabak” ikusgai Emakumeen Egunaren harira

Martxoaren 8ak aldarrikapena eta Mospakizuna uztartuko ditu aurten ere. Bezperan, martxoaren 7an, “81 amama” (2013) dokumentala emango dute 19:00etan Antzokian, eta, ondoren, Izaro Gonzalez Iregi zuzendariarekin solasteko aukera izango da. Gainera, Emakumeen Nazioarteko Egunean “Euskal Herria parekidetasunez eraiki” lelopean elkarretaratzea deitu dute 13:00etarako Plaza Barrixan. Ondoren, “poteo feminista” egingo da herriko tabernetan zehar. Hilaren 12an Word Kafearen bueltan emakumeen eta gizonen arteko parekidetasunaren inguruan hausnarketa egiteko gonbidapena

luzatu dute eta egitaraua, “Alardearen seme-alabak” dokumentalarekin itxiko da, martxoaren 13an.



“81 amama” dokumentaleko protagonistetako bat.

GILA TABERNA
GOIZEKO 6:30 ETATIK AURRERA ZABALIK
**GOSARIAK
ETA PINTXO
GOXO GOXUAK**
ERRABAL KALEA 15 T. 943 75 18 34

Javier Alonso Zelaia
MEDIKU ESTOMATOLOGOA
K.Z. 20.000.434

HORTZ KLINIKA
Errabal 1 - Barrenekoa 2 T. 943 75 16 13

David Lindemann

Alemaniar jatorriko euskalduna

Lindemann hitzak ezkia -tiloa- esan nahi du alemanieraz, eta hain zuzen, Azaliako atariko ezkiaren azpian lotu dugu hitzordua hizkuntzai langai eta permakultura amets duen alemaniar jatorriko euskaldunarekin.

Azkenean Soraluzeke mendi punta bateko baserrian bota dituzu sustraiak.

Bai, nik hirian ez dut bizi nahi, eta Soraluzeke kalean ere ez. Bitxia egiten zait lau mila biztanleko herrigune batean inor ez interesatzea Azalia moduko baserri batekin. Ez da kaleko etxea baino garestiago baina inork ez du nahi, antza. Nik bai, eta horregatik erosi dut beste lagun batekin batera. Azaliatxo eta Mendizabal baserrietatik -lagunak ditut hantoso hurbil dago; lursailak ditu, kaletik ez da ikusten eta lanerako interneta daukat. Gainera, Anboto ikusten da! Behar dudan guztia.

Baserrian lan egiteko asmorik bai?

Bai, noski. Permakultura egitasmoa diseinatzeko dihardugu, baserria eta bere ingurua, gaur arte pinadia dena, birmoldatzeko. Epe luzera jaten ematen duen inguru bihurtu nahi dugu: fruta arbolak, zuhaixkak eta barazkiak lursail berdinean jarri nahi ditugu, baina animaliarik ez, momentuz. Kaleko lan baten soldata behar dut baserrian inbertitzeko, baina noizbait bizimodua hemendik atera nahi dut.

**“Euskara-alemaniera
hiztegia ikasleentzako
pentsatua egongo da”**

Hiztegi gintza duzu oraingo ogibidea?

Bai, hiztegi gintzan eta literatur-itzulpenean lan egiten dut, hori da nere ogibidea une honetan. Euskararen normalizazio prozesua deitzen zaiona ez dago amaituta. Hizkuntza handientzako existitzen diren baliabide asko ez daude oraindik. Adibidez interneten hutsune asko daude: hiztegietan, wikipedian... Dena dela, badabil jendea horretan eta ikusten da kontuak aurrera doazela.



David, Azalia baserria atzean duela.

NORTASUN AGIRIA

DAVID LINDEMANN 1976an sortu zen Hanburgon. Hiru urte zituela Madrilera joan zen bizitzera familiarekin batera, aita lana zuelako Madril. Bertan eman zituen haurtzaroko zazpi urte, hamar urterekin berriz Alemaniara bueltatu ziren arte. Institutuko ikasketak Hanburgon egin zituen, eta hogeitazortekin Berlinera jo zuen, bere kabuz, harrezkero unibertsitateko ikasketak hasita zituela. Ez zuen bertan asko iraun, hogeitabi urterekin Nafarroako herri okupatu batera joana zen. Han bizi zela amaitu zituen zientzia politikoko ikasketak.

Hogeitazortzi urterekin Bizkaiko Otxandio herrira etorri zen bizitzera. Han ikasi zuen euskaraz eta han bizi zela ezagutu zuen gaur bere bikotea den soraluzetarra. Bi seme dituzte. Duela lau urtetik Soraluzeke bizi da, kalean lehenengo, eta Txurruka auzoko Azalia baserrian orain. Hori bai, hara eta hona zebilen bitartean Itzulpen gintza eta Euskal Filologiako ikasketak amaitzeko astia ere atera du.

EUSKARA-ALEMANIERAZKO LEHEN HIZTEGI DIGITALA

Euskal Filologiako masterra egin ostean, orain bi urte hiztegi gintza arloko lan bati ekin zion: euskara-alemaniera hiztegi elebidun elektronikoa. Horretan eman ditu azken bi urteak eta beste bi izango ditu lana amaitzeko. Aurretik, paperean lan batzuk eginak badaude ere, "zerotik" ekin behar izan dio hiztegi elektronikoa osatzeko lanari. Azken emaitza hemengo alemanierazko ikasleendako baliagarri izango den hiztegi digitala izango da, on-line egongo dena eta debaldekoa.

Hiztegi gintzako lanekin batera literatura itzultzeko lanetan ere badihardu. Hiru lan ditu itzuliak euskaratik alemanierara eta orain alemanieratik euskarara itzultzen ari da: Siddhartha (Hermann Hesse), Irati Trebiñorekin batera.

"Hiztegi elebidun elektronikoa izango da, on-line egongo da eta debaldekoa izango da"

Zelakoa izan da euskaraz bizitzearainoko ibilbidea?

Nafarroan bizi nintzela ahalegindu nintzen, baina Otxandiora heldu nintzenen hasi nintzen ganoraz ikasten. Erroldatu orduko euskaraz ikasteko plaza bat eman zidaten udal-euskaltegian eta... geroztik nere inguruak euskalduna izan da. Askok aipatzen didate meritu handia duela euskara ikasteak, baina nik hori ez dut ulertzen. Beste ezein hizkuntza baino zailagoa ez baita, bertan bizi bazara.

"Askok aipatzen dute zelako meritu omen den euskaraz ikastea. Hori ez dut ulertzen"

Alemaniera eta gaztelera lehen hizkuntzat dituen hiztun batek zela bizi du euskaldun izatea?

Euskaraz ematen du ez dagoela anonimotasunik. Euskararen mundua txikia da. Nire lagunek azaltzen didate zein den zein mundu honetan. Txikia da, baina ez nuke esango es-tua denik: jendea denetarik ikustera ohituta dago, eta bakoitzari bere nortasuna izaten lagatzen zaio, konbentzionala ez bada ere.

Bestalde, euskaldunen komunitatea politizatuagoa da ezagutzen ditudan beste hiztun komunitate guztiak baino, izan duen historia-gatik. Edozein euskaldunek esango dizu iritzi bat daukala. Alemanian askotan ez duzu iritzi bat entzungo, pertsona horrek ez daukala iritziarik. Hori da politizatuagoa dagoela diodanean esan nahi dudana, ez militantzia, iritzia izatea. Nere ustez hori garrantzitsua da eta neri erakargarria egiten zait. Nahiago dut kontrako iritzia daukan pertsona bat, iritzi gabeko bat baino.

Zer jakin behar genuke Alemani-az?

Alemania deprimentea da. Gizartea despolitizatu dago, eta, gainera, inork ez du herrirengan konfidantzarik, hemen ez bezala. Hemen herriaren hitzari konfidantza ematen zaio, Alemanian ez. Alemaniako herriak Hitlerren alde bozkatu zuen gehiengoz, holokaustoa alemanek egin zuten, eta oraindik ez da errekuperatu horretatik. Kanpotik etorri behar izan ziren, herria naziengandik liberatzeko. Hori latza da herri baten autostimarako. Garbiketa egin zuten xaboi amerikarrarekin, eta, orain, ez dago politikarik, herritarrengan, behintzat. Ekialdeko Alemaniako desastre sobietarra ikusita, gaur eguneko ezker politikoak zailtasunak ditu, ez daki zeri heldu. Bestalde, Alemanian ez dago herri-kulturarik, naziek lapurtu zuten dena. Eta ez da herri guztia batzen duen ospakizunik Euskal Herrian bezala.


"Hemen herriaren hitzari konfidantza ematen zaio, Alemanian ez"

Hemendik miresmeneguz begiratzen zaio Alemaniari.

Bai, baina zer da miresten dena, ongizatea esaten zaiona? Ba han ere badaude txi-roak eta etxegabeak. Erabateko industrializazioa, erabateko kontsumismoa, Carrefour... eta hori dena? Hori ez da miresteko ezer.

Zer ezaugarri positibo nabarmenduko zenuke?

Ogia egiten dakite. Eta garagardoa. Horretaz aparte ez dut ezer faltan botatzen.



LARRE MOTZEAN

Euskal kulturaren ezaugarri bat.

Hemen garrantzi handia ematen zaio eserita eta ondo bazkaltzeari. Hori asko gustatzen zait. Europan ez dute janaria prestatzen, egindakoa erosten dute, eta askotan zutik jaten dute, kalean.

Iparaldekoak hotzagoak zaretela diote.

Euskaldunak ere hotzak dira. Ez daukat arazorik horrekin. Berotasun superfizial batek ez dit laguntzen.

Soraluze.

Herri handietan dagoen guztia hemen ere badago, nahiz eta txikia izan. Gizarte mugimendu bizia eta gaztetxe autogestionatua du. Alemaniako lau mila biztanleko herri batean ez dago horrelakorik.

Gaztetxea.

Herriko ekimenik kuttunena.

Azken liburua.

Ihes betea (Anjel Lertxundi). Istorioa Alemanian kokatua da, eta esanguratsua iruditzen zait liburua.

Interneteko gune bat.

Meteoblue. Euskaraz ez daki. Berarentzat Placencia de las Armas gara.

Herriko txoko bat.

Nere ortua. Gustoko dudana kirol bakarra da eta jaten ematen dit.

Euskal esaera bat.

Non gogoan hangoa.

Asier Eta Biok filma izan da Udalak antolatuta Ostegunetako Pelikulak programaren barruan eskaini den lehenengo filma. Ikusmin handia sortu zuen eta aretoa ia bete egin zen ehunetik gora herritarrekin. Zinemarekiko dituzten ohituren berri galdetu diegu herritarrei.

Joaten zara zinemara? Ikusten duzu filmarik?



Lino Alberdi

Umeekin bai, joan izan naiz umeendako filmak ikustera, bestela, aspaldian ez. Laneko bidaietan ikusten ditut filmak, denbora pasa. Etxean ere bai bakarren bat lagunek pasatuta. Easy Rider bidaiaria filma dut gustokoenetako bat.



Leire Ariznabarreta

Ez. Ez zait gustatzen zinema. Nahiago dut internetetik jeitsi eta filmak etxean ikustea. Beldurrezkoak dira gehien gustatzen zaizkidanak. Jonh Q filma da gehien gustatu zaidanetako bat.



Iñigo Mendia

Aspaldian ez. Ikasle garaian Tolosan bizi nintzela joaten nintzen zine klubeko filma idependienteak ikustera. Guraso naizenetik apenas hartzen dut astirik filmak ikusteko. Kevin Costnerrren Robin Hood da nere filmarik gustokoenetako. Astebetean hiru aldiz ikusita nago.



Mirari Gallastegi

Bai. Joan izan naiz eta joaten naiz tarteka Eibarrera eta, baina antzerkira gehiago. Orain umeen filmak ikusten ditut gehiago eta tarteka helduendakoak ere bai internetetik jeitsita. Las Brujas de Zugarramurdi da azkena ikusi dudana.

Lehiaketa

Zein da?



Aurreko aleko erantzuna

Andoni Rico, nesken futbol taldeko entrenatzailea

Irabazlea



Jon Caballero

Saria:

Orkestra Sinfonikoaren kontzerturako bi sarrera

Oharra: Lehiaketako irabazlea aukeratzeko zozketa alea atara eta hurrengo barixaku eguerdian egiten da.

Deitu **943 75 13 04** edo e-mail bat bidal ezazu **aldizkaria@pilpilean.com** datorren **barixaku eguerdia** baino lehen.



Agenda

PELOTA

Gaur, 22:00etan Aranen
UDABERRI SARIA

Larrañaga – Tajuelo

Allerruko ordezkariak (Lezo)

EUSKAL HERRIKO OHOREZKO LIGA
Finalerdia

Andreu – Bolinaga

Sancho – Urruzola (Usurbil)

Andreu eta Bolinaga Ohorezko
Ligako finalerdietan

Euskal Herriko Ohorezko Ligako ligaxkan bigarren sailkatuta finalerdietarako pasea lortu dute AndreuketaBolinagak.GaurUsurbilgo SantxoetaUrruzoloren aurkajokatuko dute lehen kanporaketa, 22:00etan Aranen.

Larreategi-Kortaberria bikotea ere Udaberri Txapelketako finalerdietarako sailkatu da azken partidand Beasaineko ordezkari 22-3 irabazi eta gero.



FUTBOLA

Martxoak 8, zapatua 16:30etan
Ezozin

Sora (Erreg. Pref.) - Zumaiaiko
(Ordutegia zehazteke)

Garmendipen

Ikasberri – Sora (Erreg.)

(Ordutegia zehazteke)

Aretxabaletan

Aretxabaleta – Sora (Jub.)

Martxoak 8, zapatua 11:00etan

Ezozin

Sora (Kad. Mut.) – Aloña Mendi

Martxoak 8, zapatua 12:00etan

Ezozin

Sora (Kad. Nesk.) – Aloña Mendi

Mikel Hernandez bigarren Zumaiaiko itzulian

Otsailaren 15ean Uztaritzen (Lapurdi) hasi eta bukatzen den Bucles de l'Essor txirrindularitza frogan seigarren sailkatu zen Hernandez. Euskal Selektzioaren babesean korritu zuen eta Wilier Bertazzo irabazle italiarra baino 19 segundo beranduago helmugaratzea lortu zuen, frogako 121 kilometroak 2:17:34ko denboran eginda. Joan den zapatuan jokaturako Zumaiaiko itzulian berriz esprintatu eta Jon irisarri EDP taldeko ordezkariaren atzetik sailkatu zen bigarren. Asteburu honetan berriz Kantabrian arituko da txirrindulari soraluzetarra.



Mikel Hernandez Zumaiaiko podiumean.

Lizarte taldeko Marc Soler izan zen bizkorrena Soraluzeko XVII. Sarian

Bakar bakarrik helmugaratu zen Lizarte taldeko txirrindulari kataluniarra. Bere atzetik Cafes Baque taldeko Carlos Jimenez iritsi zen eta podiumean hirugarren Lizarteko Jorge Arcas. Debarrenako Xabier Gallastegi soraluzetarrak 126. postuan amaitu zuen lasterketa. Lehendakari Txapelketako lehen proba honetan 23 urtetik beherako 154 txirrindularik hartu dute parte eta antolatzaileak oso gustura azaldu dira kopuruarekin.



Xabier Gallastegi Soraluzeko itzulian. Iturria: Carlos de Cos.

Mendi taldeak 13 irteera prestatu ditu ikasturte honetarako

Martxoaren 3an, 5ean eta 6an izango da ume eta gazteen mendi irteeretan izena emateko aukera, 18:30etik 19:30era mendi taldearen lokalean (Pil-pilean). Martxoaren 9an, Aretxabaletan egingo den Federazioaren ibilaldi neurtuan hartuko dute parte, eta 23an Arabako Aldabatik Gebarako gaztelura egingo dute txangoa izango da antolatuko duten lehen irteera propioa. Apirilaren 6an Elgeamenditik Dorletara joango dira eta 27an Brinkolako Arranoaitz mendia ezagutuko dute. Urria bitartean 13 txango egingo dituzte, Pagasarri, Armintza, San Martzial, Arboleda eta Oketara besteak beste.

Kontulan Aholkularitza S.L.
Enpresa aholkularitza
Jabe Elkarteak
Aseguruak

Santa Ana, 13 - 1 esk.
Etelano: 943 75 17 82 Fax: 943 75 01 82

20590 Soraluze
GIPUZKOA

JUAN MARI
ARRXINDEGIA

943 75 24 40
MERKATU PLAZA

ESKERRIK JOKO PLENTZIETARRAKI
OGAN ELANDAKO KONFANTZAGETIKI

Errepertoriorik ezagunenarekin dator orkestra herrira

Martxoaren 14an, Euskadiko Orkestra Sinfonikoak kontzertua eskainiko du udal pilotalekuan. Datorren ikasturtean musika eskola sortu zeneko 25. urteurrena beteko dela eta, datozen hilabeteetan musikazaletasunari gorazarre egiteko antolatuko diren ekitaldietan lehena izango da



Orkestrako musikariak.

orkestak herrian eskainiko duen kontzertua. Ohiko kontzertuetatik kanpo herrietan eskaintzen dituzten emanaldi berezietako bat izango da. Hori dela eta jendeari hurbileko gerta dakion, oso ezagunak diren bi obra eskainiko dituzte; Beethovenen 5. Sinfonia eta Tchaikovskyren Piano eta orkestrarako 1ngo kontzertua, ordu erdiko bakoitza, tartean atsedendiaarekin. Orkestrako ordezkarien esanetan, "jendea gozarazi eta hunkituaraztea" da garrantzitsua.

Sarrerak salgai

Antolatzaileek aurrekusi dute herriko musikazaleez gain, inguruko herrietako klaskozaleak ere hurreratu daitezkeela eta 500 ikuslerendako lekua egokituko dute. Sarrerak salgai daude dagoeneko musika eskolan, kiroldegian eta Iratxonean, 10 euroko prezioan (takilan 15 balioko dute).

'Pankreas' tragikomediaren aurreestrenaldia martxoaren 7an

Jokin Oregik zuzenduta, "Pankreas" bertsoz idatzitako lehen euskal antzezlaren aurreestrenaldia egingo dute Patxo Telleria, Mikel Martinez eta Joseba Apaolaza aktoreek martxoaren 7an (barixakua). Hiru lagunen istorioa

kontatuko dute; "lehenak pankreasen transplante baten premia larria dauka. Bigarrenak urtebetera bere buruaz beste egiteko asmoa du, herentziatzko Alzheimerri izkin egiteko eta hirugarrenak proposamen bat egingo dio bigarrenari: suizidioaren epea aurreratzea, lehenengoari bere pankreasa emateko". Une hartatik aurrera ezusteko gertaerak bata bestearen ondoren etorriko dira, "fisika modernoaren axioma bati men eginez: gerta daitekeen guztia, denik eta sinetsgaitzena bada ere, gertatu egiten da noizbait".

Sarrerak egunean bertan salgai

Emanaldia arratsaldeko 19:00etan izango da Antzokian eta sarrerak egunean bertan eskuratu ahalko dira 3 euroan, antzezlana hasi baino ordu erdi lehenago txarteldegian.



Antzezlaren kartel iragarlea.

Kultur agenda

Gaur, barixakua

ANTZERKIA
"Eguzkilore"
19:30ean, gaztetxean

AFARI BEGETARIANOAK
20:30etik aurrera, gaztetxean

Martxoak 5, eguaztena

HITZALDIA
"Haurraren agresibitatea"
17:30ean, Antzokian
Hizlaria: Nerea Mendizabal

PELIKULA EMANALDIA
"Gartxot"
21:30ean, gaztetxean

Martxoaren 11tik 29ra

ARGAZKI-ERAKUSKETA
Jose Maria Ibarzabal
Kiroldegiko erakusketa-aretoan

Martxoak 12, eguaztena

PELIKULA EMANALDIA
"Queridimos verdugos"
21:30ean, gaztetxean

Martxoak 13, eguena

OSTEGUNETAKO PELIKULA
"Alardearen seme-alabak"
Euskal Herria 2013. 84m.
21:00etan, Antzokian

Martxoak 15, zapatua

SAGARDOPEGIRA IRTEERA
Izen-ematea: 943751304, martxoaren 9a arte

ZINEMA ARROXA
"United in Anger: a history of act up"
19:00etan, Antzokian

Martxoak 19, eguaztena

PELIKULA EMANALDIA
"Premutos, el angel caido"
21:30ean, gaztetxean

Martxoak 21, barixakua

JAM SAIOA gaztetxean
22:00etik aurrera



• Makina bereziak
• Lerro automatikoak
• Estankotasunaren kontrola



943 75 18 01 • Mendiola industrialdea 14, Soralue



Mendiola industrialdea, 13
20560 SORALUZE (Gipuzkoa)
Tel. 943 75 12 69 • 616 168 227
Faxa 943 75 23 41
gabildondo@laibi.net • www.laibi.com

Zorion agurrak



Nora Larreategi
Otsailan 21an 4 urte!
Zorionak printzesa!
Muxu haundi haundi bat
etxeko guztien partez!



Jokin Maiora Larrañaga
Otsailan 7an 5 urte
Zorionak eta besarkada
haundi bat etxeko danen
partez!



Janire Muñoz
Martxoan 8an 6 urte!
Zorionak maittia familixian
partez!
Asko maitte zaittugu!!



Julene Zabala Goenaga
Otsailan 25ean 16 urte.
Familia guztian partez
besarkada haundi bat!




Ander eta Naroa Agirregomezkorta
Otsailan 9an eta 8an 3 urte eta urtebete!
Zorionak polittak eta patxo haundi bana
etxekuen partez!



Marga eta Ane, atzo urtiak bete zittuzuen!
Zorionak polittak, jarraitu beti alai eta jator. Muxu eta
besarkada haundi bat etxekuen partez!



Ibai Rodriguez Larrañaga
Martxoan 11n 10 urte!
Zorionak txapeldun!
Patxo pila etxekuen partez!



Markel Soraluze
Martxoan 14an 8 urte!
Zorionak eta ondo pasa mutil
haundi, etxekuen partez!



Naroa Zubiaurre eta Aratz Azkorbebeitia
Martxoan 4an 8 urte eta martxoan 11n urtebete!!!
Etxeko guztien partez txokolatzeko muxu haundi bana!

Jaiotakoak eta hildakoak



Lander Cifuentes Angel
Markel Gonzalez Errasti




Manuel Otero Garcia
Miren Igone Arluziaga Iribar
Marcelino Bruña del Arco
Juan Mari Arizaga Urizar



IKER LASAGA LLAMAS "TITINO"
2013KO OTSAILAREN 13AN HIL ZEN,
35 URTE ZITUELA

"Jarraitu Kantauri itsasoko soinuak zaintzen"

Zure lagunak



NIKANOR IÑURRIETA GOIKOETXEA
1920/01/11-2013/03/12
I. URTEURRENA

"Gure artian jarraitzen dozulako, asko maitte zaittugu"

Etxekuok



Iturria: Egoitz Unamuno

Ikastolako ikasleak aratosteetan

1 980. hamarkadaren erdialdera Soraluzeko Ametsa Ikastolako ikasleek Aratosteetako kalejiran irten aurretik ateratako argazkia. Ikastola izan zen 80. hamarkadan aratosteetako egitaraua osatu zuena: zapatuan dantzaldia eta martitzenean kalejira eta lehiaketak antolatuta.

Argazkian, ezkerretik eskumara zutik daudenetatik hasita:

Ander Etxeberria ☩, Olatz Larreategi, Andoni Azkarateaskasua, Mertxe Epelde (Andereñoa), Ane Yabar, Itziar Urteaga, Lorea Gonzalez, Eider Unamuno, Bittor Laskurain, Aritz Gantxegi, German Moya, Leticia Alvarez, Aintzane Maiztegi, Zaloa Gantxegi, Jon Beristain, Nerea Ucin, Nerea Aldazabal, Vanessa Zazo, Loiola Madera, Eñaut Unamuno, Aritz Oruesagasti, Laura Fernandez eta Egoitz Unamuno.



BENAN RODRIGUEZ
2000KO OTSAILAREN 28AN HIL ZEN
XIV .URTEURRENA

*"Atzo nire konpainian,
gaur nire oroimenean,
betirako nire bihotzean"*

Familia



**GONZALO GOROSTIDI
ZUBILLAGA**
1922-06-16 - 2009-02-25
**M^a ASUNCIÓN
ARIZNABARRETA GABILONDO**
1926-08-11 - 2009-03-13
V .URTEURRENA

*"Bost urte pasau dira ez
zaittuzteguila ondoan baina egunero
zaittuztegu onduan.
Aitxa-Ama, Aitxitxa-Amama"*

Etxekoak

Elizpe
Hortz klinika

Gure zebitzuak:
- Ortodontia ikatzedina
- Implanteak

DIRAINDAKO BERRIKUNTZAK
FINANZATUTA ZURE NEKAZIA
KONPROMISOARI GAIERIKO NUBERKONTUA

Tel. 943 75 25 67
Elizburu 3 beheko, Sorluze

MUTUALIA, PADE (haumen arretarako hortz programa)



IZAGUIRRE
Igeltseritza

943 75 11 62 • 649 867 289




Desing
Diseinua eta Formena

Pellegano Amillaga, n° 5
Tel.: 943 76 99 85
20570 BERGARA (Gipuzkoa)
Fax.: 943 76 05 17

Altzairuen fabrikazioa:

- Bainugelak
- Sukaldeak
- Hormo-armairuak
- Barruko altzairuak



PASCUAL CHURRUGA, S.A.

Hotzian eta beruan
jotako tornilluak

Errekalde 21
20590 SORLUZE

T. 943 75 00 06
T. 943 75 16 00
F. 943 75 24 61



SAN ANDRES
ITURGINTZA

Iturgintza, gasa,
eta berogailuak
sukaldeak eta bainuak

Errebal kalea 2 behea Tel. 943 75 16 46 • 639 179 696



TXURRUKA
JATETXEA

www.txurruka.com
943 75 15 81

Soratostiak

2014

OTSAILAK 28, BARIKAKUA

ARGAZKI MARATONIA, 15.00etan, eskolan.
KALEJIRA KOLORETSUA, 15.45ean, kalez kale.
"ELSKAL ARATOSTIAK" IRRIA ETA FESTA ekitaldia, 17.45ean, Kiroldegian.
TXOKOLATADA gurazoen eskutik, 17.30ean, Kiroldegian.
ASTINDU GORPUTZA: DJ ARNOrekin, ostean, Plaza Zaharrean.

MARTXOAK 1, ZAPATUA

"Aklarre" TXARANGA, 12.00etatik aurrera, kaleak giroten.
SALDA ETA TXORIZOA, 13.00etan, Plaza Zaharreko karpan.
HAURRENTZAKO JOLASAK, 17.00etan, Plaza zaharreko karpan.
ARATOSTEETAKO DANTZAK, 18.30etatik aurrera, kalez kale.
DANTZALDIA "Gaubela" taldearekin, 19.00etan eta 23.00etan, Plaza zaharreko karpan.

MARTXOAK 4, HARTITZENA

HAURRENTZAKO PLAY-BACK LEHIAETA 18.00etan, frontoian.
BURLHANDIAK Sorluzeako DULTZAINEROEN lagundirik, 18.30ean.
DANTZALDIA "Isakets" taldearekin, 19.00etan, Plaza zaharreko karpan.
MOZORRO LEHIAETAko sari banaketa, 20.30ean, Plaza zaharreko karpan.
DANTZALDIA "Isakets" taldearekin, 22.30ean, Plaza zaharreko karpan.












EUSKADIKO ORKESTRA SINFONIKOA SORALUZEN



Martxoaren 14an, 20:00etan, kiroldegian

Obrak

Beethoven: Bosgarren sinfonia

Tchaikovsky: Piano kontzertua 1

Sarrerak

Iratxon, Kiroldegian (943752466) eta Musika Eskolan (943751544).

Prezioa

Aurretik 10 €, takilan 15€

Gozatu klasikoa!

Antolatzailea:



Laguntzailea:



SORALUZeko UDALA

